

**ASTEAZKENA**

2022/01/19  
10. urtea, 1.537. zenbakia  
107.6 fm

**Ataria.eus**

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

## Negurako kultur egitaraua prestatu du Alegiako Udalak

Intxurre elkartearen urtemuga, Olatz Salvadorren kontzertua edota Kimua kolektiboaren 'Generoa' ikuskizuna izango dira, besteak beste, ekitaldien artean // 4

## Tolosako Paper kalea eraberritzeko lanak egingo dituzte

Biribilgunea sortuko dute San Frantzisko eta Pedro Tolosa artean; 28 autorentzat eremua egokituko dute Santa Lutzian; Izaskun auzoa irisgarriago egiteko lanak ere hasi dituzte // 3

**San Sebastian eguna ospatuko dute eskualdeko bi herritan // 4**

**Denboraldiko bigarren zatia begira daude saskibaloia jokalariek // 7**



LEYRE CARRASCO

## TOLOSALDEA TRENAREN ZAIN

Irun eta Brinkola arteko tren zerbitzuan atzerapenak eta etenaldiak ohikoak izaten direla salatu dute erabiltzaileek; Hirugarren Errailak Kaltetutako Erabiltzaileen plataforma sortu dute, eta egoeraren berri ari dira ematen // 5



**ZATOZ SAMANIEGO BISITATZERA**  
Eskaneatu QR kodea eta hitzartu zurea



Informazioa  
samaniego-tolosa.hezkuntza.net  
943 651 063 / 688 867 570

AURREMATRIKULA IREKIA URTARRILAREN 17TIK 28RA

## TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

ESKOLA EUSKALDUNA, INTEGRATZAILEA ETA BIZIA

**ZATOZ ORIXE EZAGUTZERA**  
Eskaneatu QR kodea eta ezagutu gaitzazu!



Informazioa  
orixebhi.hezkuntza.net  
943 899 289 / 942 899 288



0-18 urte bitarteko heziketa eskaintza publikoa

**28 pertsona daude COVID-19arekin adinekoen zentroetan**

Hiru positibo berri atzeman dituzte azken egunean; Gipuzkoan 130 positibo berri izan dira, eta lau egoiliar hil dira

**Erredakzioa**

Gipuzkoako Foru Aldundiak COVID-19ari lotutako adinekoen zentroetako egoerari dagozkion datuak eguneratu ditu. Horiei begiratuta, herenegun 130 positibo berri atzeman zituzten Gipuzkoako adinekoen zentroetan, horietatik, hiru Tolosaldekoetan. Hain justu, Tolosako Iurreamendi eta Uzturre zentroetan eta Villabonako Santiagon positibo berri bana atzeman dute. Une honetan 28 pertsona daude COVID-19arekin hiru zentro horietan, 19 Uzturre zentroan, 7 Iurreamendin eta 2 Santiagon. Uzturre zentroko 6 egoiliar sendatu direla azken egunetan esan du aldundiak.

Gipuzkoako datuei erreparatuta, 130 positibo berri atzeman dituzte, 133 dira sendatu berriak, eta lau egoiliar hil dira azken egunetan. Erreferentzia zentroetan 41 pertsonak eman dute positibo. Iazko azaroaren 29tik 441 pertsonak eman dute positibo, 366 sendatu dira, eta 15 hil.

**Tolosaldeko Bertso Eskolen Eguna larunbatean, Iruran**

Harituz Bertsozale Taldeak iaz ospatu zuen lehen aldiz eta izandako arrakasta ikusita berriz ere antolatu du; 10 eta 14 urte arteko gazteak animatu ditu bertan parte hartzera



Iaz Zizurkilen egin zuten Bertso Eskolen Eguna. HARITUZ

**Erredakzioa** Irura

Harituz Bertsozale Taldeak Tolosaldeko Bertso Eskolen Eguna antolatu du bigarren urtez jarraian.

Larunbatean izango da aurtengo bertso eskolen eguna, Iruran. «Bertso eskoletako ikasleen arteko harreman sarea eraiki eta egunpasa bikain bat egitea da ospakizunaren helburua, betiere, euskara eta bertsolaritza ardatz

hartuta», esan dute Harituz taldeko kideek.

Tolosaldeko bertso eskoletan dabilen haurrez gain, bertso eskolan ez dabilen baina bertsolaritzarekiko interesa duten haur eta gaztetxoak ere gonbidatu ditu Harituzek: «Hamar eta hamalau urte bitarteko Tolosaldeko bertsozale guztiak gonbidatu nahi ditugu lagun berriak egin, bertsoaz gozatu eta tarte atsegina pasatzera». Egunaren

egitaraua guztiz zehazteke egon arren, 2021ean Zizurkilen izandako arrakasta ikusita, antzeko zerbait antolatzen ari da Harituz aurtengorako; beraz, jolasik, bertsozik, irririk eta zirrararik ez da faltako. Hori dela eta, taldeak eskualdeko haur eta gaztetxok parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

Izena eman nahi dutenek posta elektronikoko bat bidali beharko dute [harituz.bzt@gmail.com](mailto:harituz.bzt@gmail.com) helbide elektronikora.

**Mintza Tonbola San Frantzisko pasealekuan**

**TOLOSA** // Larunbatean 11:00etatik aurrera Mintza Tonbola izango da Tolosako San Frantzisko eliza parean. Bertan hainbat sari lortzeko aukera izateaz gain, Mintzalaguna egitasmoari buztada bat emateko aukera egongo dela gogoratu du Galtzaundi Euskara Taldeak. Berrogeita hamar saritik gora lortzeko aukera egongo da, besteak beste, telazko poltsak, bolaluma, katiluak, termoak eta koadernoak.

**Hobariak lortzeko epea zabaldu du Anoetako Udalak**

**ANOETA** // Hainbat udal zergatan herritarrek izan ditzaketen hobariak eskatzeko aukera zabaldu du Anoetako Udalak eta aste batzuetan luzatuko du, eskaeraren izaeraren arabera. Hobari eta salbuespen eskaerak egiteko hainbat baldintza bete behar dira eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da. Tartean dira familia ugarienezako laguntzak lortzea bai Ondasun Higiezinaren Gainerako Zergan eta baita Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergan ere, eta salbuespenak izatea mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuetan eta traktore, atoi, erdi-atoi eta makinarian. Informazio gehiago [Anoeta.eus](http://Anoeta.eus) webgunean.

**GUTUNA****Atxupia gainetik Belabietara doan bideko putzuak eta kastoreak**

**U**zturre inguruan oinez edo bizikletaz ibiltzen den edonork dakienez, mendiari buelta ematen dion bidearen iparraldeko zatian putzu asko sortzen dira eta doi-doi pasatzeko moduan daude.

Beti hala ezagutu duela esan dit norbaitek, baina azken urteotan egoera okertu ote denaren itxura hartzen diot nik; geroz eta

putzu handiagoak sortzen ari dira eta lokatzak urte osoan bertan iraute du.

Azken bi asteburuotan aitzurra hartu eta putzu horiek husten saiatzeko ubideak irekitzen ibili naiz, ez zitzaidan plan hori bururatzen. Kanalak zabaltzen, harriak handik kendu eta hemen jartzen, lokatza mugitzen... ibili naizen ordu horietan hausnarketarako denbora tarte bat ere izan nuen, eta gogo eta horiek partekatu nahiko nituzke. Lehena, eta agian garrantzitsuenak, bide hori mantentzeko lanak udalak egin beharko lituzkeela. Garai batean baserriarrek zaintzen omen zituzten bideak, baina ez dago gaur egun bideak zaintzera igoko den baserriarrik, eta borondate onez zerbait egitera animatzen garenontzat gehiegizko lana da hor egin behar dena.

Bigarrena, ibiltariok eragindako lokatziak direla asko. Ea nola azaltzen dudan. Urak pilatzea eta tarteka lokatza sortzea normala da. Lokatz hori gaintzeko oinezkoek adarrak jartzea ere normala izan daiteke, baina oharkabea, kastoreen moduan, presak sortzen ari gara. Urak ahalik eta putzu gutxien sortzea nahi badugu ahalik eta azkarren ihes egiten laguntzeko bidea ireki behar zaio, eta adarrekin sortzen ditugun presa txiki horiekin urak mendian behe bere bidea egitea eragozten dugu, urak bertan pilatuz eta konpondu nahi dugun arazoa areagotuz.

Hirugarrena, auto eta motoek, eta neurri txikiago betean bizikletek ere, arazoa larriagotzen dutela. Tarte horietan lurra biguna denez, eta berezko sakonera duenez, ibilgailuek kanalak

handiagotzen dituzte, eta batez ere ibilgailu pisutsuek sakonera handiagotzen dute.

Horren konponbidea lehenengo gogoetarekin lotua dagoela uste dut. Gune horiek sendotzeko harria sartu behar da, lurrak berdindu behar dira, ura ebakutzeko malda eman behar zaio... eta hori guztia aitzur txiki batekin egin daitekeena baino lan serioagoa da. Bestalde, ez dakit autoen sarbidea mugatzeko zerbait ez ote litzatekeen egin beharko.

Benetan ez dakit baimenak eta araudiak nola dauden gai horretan, eta ez nuke liskar horretan sartu nahi. Ulertzen dut niri bizikletaz ibiltzea gustatzen zaidan bezalaxe, beste batzuei, beren eskubideen barruan, autoz igotzea gustatuko zaiela. Baina agian, baimen horiek ematen badira, eragiten diren kalteak

orekatzeko baliabideak jarri beharko lirarteke.

Eta azkenik, laugarrena, benetan kastoreen bat dabilela uste dudala. Lehenengo asteburuan ireki nituen ubideak intentzio osoarekin itxita topatu nituen bigarren asteburuan. Putzu batean lokatz mordoxka batek ixten zuen bidea eta akzidentala izan zitekeela pentsatu nuen. Baina bigarren putzuan garbi ikusten zen berriaz jarritako tapoia zela. Neurri-neurriko adarra sartu kanalean eta lokatzarekin hartu urak ihes egin ez zezan. Ez zait bururatzen pertsona batek hori egin dezakeenik, ez baitut ulertzen putzuak hustea eta bidea lehortzea noren kalterako izan daitekeen.

Beraz ziur nago kastoreak dabilzala Atxupia-gainetik Belabietara doan bidean.

**Nagore Salaberria Sorondo** Irura

**IRAGARKI LABURRAK****Salgai**

**Txerriak.** Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

# Paper kalea eraberritzeko lanak aste honetan hasiko dituzte

Bost hilabeteko iraupena izango dute obrek; San Frantzisko eta Pedro Tolosa kaleen arteko bidegurutzean biribilgune berria ere sortuko dute

## Erredakzioa

Paper kalea eraberritzeko eta San Frantzisko pasealekuaren eta Pedro Tolosa kalearen arteko bidegurutzea biribilgune egiteko lanak hasiko dituzte aste honetan.

Lan horiekin 2021 urte amaieran hasia aurreikusi bazuten ere, hasiera data atzeratzea erabaki zuen Udalak, «hasi eta Gabonetan geldirik gera ez zitezten». Hala, jai egunak igarota, aste honetan emango zaie hasiera obrei.

Datozen egunetan eremua prestatzeko lanak egingo dituzte, hala nola, hesiak jarri, makinaria ekarri eta obretarako etxolak kokatu, eta ondoren hasiko dituzte hirigintza lanak.

Tolosako Udalak zehaztu duenez, Mugikortasun Plan berriaren barruan zaharberrituko dute espazio osoa, «irisgarriagoa eta seguruagoa izan dadin tolosarrentzat». Sasoi Eraikuntzak enpresa arduratuko da lanak aurrera eramateaz eta guztira, 559.108,7 euroko (BEZa barne) kostua izango du. Lanak, zehazki, Berazubi kaleko eta Iurra-



Erdibitzailea kendu egingo dute. ATARIA

mendiko biribilguneen artean egingo dituzte eta galtzadan eta erdibitzailean eskuhartuko da bereziki. Erdibitzailea kendu egingo dute eta bidegorriaren zoladura eta seinaleztapena hobetuko dituzte.

Oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko espaloiak handitzeaz gain, oinezkoentzat pasabide berriak sortu eta goratuko dituzte. Halaber, kalea 30 kilometro orduko eremu gisa indartuko da hiru metroko zabalerako errepideekin eta asfalto inprimatuarekin zirkulazio-abiadura murriz-

teko eta pertsonen segurtasuna hobetzeko.

Autobus-geralekua ere berritu egingo dute eta aparkalekuen egoera hobetu. Hain justu, motozikletentzako aparkalekuak eta bizikletentzako hiru aparkaleku jarriko dituzte, eta mugikortasun urriko pertsonentzako hiru aparkaleku gordeko dituzte. Era berean, argiteria sarea aldatu eta kale-argiteria berrituko dute kontsumo baxuko Led argiak jarrita. «Helburua da espazioaren erakargarritasuna eta kalitatea handitzea», esan dute udaletik.

Asfaltatze lanekin batera (San Frantziskon, Usabalgo industrialdean eta Monteskueto geralekuko bidean), hasiera emango zaie San Frantzisko pasealekuaren eta Pedro Tolosa kalearen arteko bidegurutzea biribilgune bihurtzeko lanei. Behin betiko soluzio bat diseinatu du udalak, oinezkoen ibilbideak, bidegorriak eta ibilgailuen zirkulaziorako galtzadak barne hartuta.

Biribilgunea egitean, San Frantziskoko eta Alliri auzotik datorren kaleko bi erreiak desagertu eta bakarra utziko dute espaloien eta bidegorriaren zabalera handitzeko. Beraz, obren hasieratik, San Frantziskoko eta Alliritik datorren kaleko errei bat kendu egingo dute eta obra amaitu artean mantenduko dira semaforoak martxan. «Aldaketa honekin, eremuko bizi kalitatea nabarmen hobetzea espero da, bide-segurtasuna eta irisgarritasuna hobetu, zaratak gutxitu eta emisioak murriztuko direlako», esan dute. Usabaldik hasiko dira asfaltatze lanak egiten eta eremu eremu egingo dute. Lanak egingo diren azken eremua Pedro Tolosa izango da.

## Izaskun auzoa irisgarriago egiteko lanak martxan jarri dituzte

Igeralde kalean eskailerak eta arrapala egingo dituzte eta Igeralde eta Bizkaia kaleko bidegurutzea eraberrituko dute

## Erredakzioa

Pasa den urte amaieran Zabalarretako sarbideetako batean arrapala berria sortu ostean, herenegun hasi ziren Izaskun auzoa irisgarriago bihurtzen jarraitzeko lanak. Tolosako Udalak azaldu duenez, oinezkoentzako gunea hobetzea dute helburu abiatutako lanek, «tolosarrentzat atseginagoa, irisgarriagoa eta seguruagoa izango den espazioa sortzeko».

Batetik, Igeralde kaleko 17 eta 19 atarien parean eskailerak egingo dituzte eta baita arrapala bat ere, irisgarritasuna hobetzeko eta auzoko bizilagunei hirigunera iristeko bidea errazteko.

Aldi berean, Igeralde eta Bizkaia kaleen arteko bidegurutzea ere eraberrituko dute. Orain dagoen lurra altxatu eta espaloia eta errepidea maila berean jarriko dituzte, koxkarik ez egoteko eta oinezkoen zirkulazioa errazteko, kontuan izanik auzoko bizilagunak, batez ere, adineko pertsonak direla.

# 28 autorentzat lekua, Santa Lutzia auzoko gune berrian

## Erredakzioa

Santa Lutzia auzoan, hain justu, Orixe eta Samaniego ikastetxeetara igotzeko bidean, 28 plaza izango dituen behin-behineko aparkalekua eraikiko du Tolosako Udalak.

Adierazi dutenez, trafiko eta aparkaleku arazoei irtenbidea emateko, eta Eusko Jaurlaritzak eraikiko duen institutuko eraikin berria dela-eta, galduko diren aparkalekuak berreskuratzeko eta aparkaleku kopurua handitzeko sortuko dute eremu berria. «Herriarren beharrei eta eskariei erantzunez, beharrezko

azpiegiturak sustatzeko helburuaren barruan kokatzen da aparkaleku berriaren sorrera, eta aparkalekua eraikin berria sortu aurretik eraikiko da arazoak ekin aldera», azaldu dute Tolosako Udaletik.

Aparkaleku berria eraikitzeak obrak fase ezberdinak izango ditu. Lehenik eta behin, udalaren jabetzakoa den eta hutsik dagoen Etxeberri baserria hustu eta eraitsi eta zorua egokituko dute, aparkalekua sortzeko. Datozen egunetan ekingo zaie eraisketa lanei, eta segurtasuna bermatzeko, eraikina ez dela as- tean zehar eraitsiko azaldu dute.

Egitura eraisteko, bitarteko mekanikoak erabiliko direla baieztatu du udalak, besteak beste, zizaila duen iraitzeko makina murriztailea, elementu bakoitza erabiltzeko errazak diren piezetan zatituko duena.

Eraikina eraitsi ondoren, 950 m2 izango dituen aparkaleku berria eraikiko dute. Aparkalekua eraikitzeak bost aste beharko dituzte eta eremuan dagoen kota desberdintasuna gainditzeko, errepidearen maila berean jarriko dute aparkalekua. Horretarako, indusketa lanak egin beharko dituztela esan du udalak.

Gainera, bidegorria babesteko, aparkalekuaren eta bidegorriaren artean *New Jersey* estiloko hormigoizko hesiak jarriko dituzte. Guztira, 95.366,84 euroko kostua izango dute lanek (BEZ barne).

## PROIEKTU INTEGRALA, AURRERAGO

Datozen egunetan hasiko dituzten obrekin, behin behineko aparkalekua sortuko du beraz Tolosako Udalak. Izan ere, etorkizunean eremu osoa hartuko duen proiektu integrala garatu nahi du, egungo aparkalekua eta sortuko den behin-behinekoa uztartuko dituen. «Helburua da orain gauzatuko ditugun lanak baliagarriak izatea etorkizunean garatu ahal izango den proiekturako, bereziki, indusketa lanei dagokienean», esan dute.

## ‘Kirola’ izango da Tolosanklisk argazki lehiaketako gaia

## Erredakzioa

2023ko Tolosako Egutegia osatuko duten argazkiak aukeratzeko Tolosanklisk lehiaketaren aurtengo gaia *Tolosa, kulturaren plaza* izatea erabaki bazen ere, aurtengo Tolosa CF-k bere mendeurrena ospatzen duenez, eta «herrian egiten duen lana eta zabaltzen dituen balioei aitortza egiteko», egutegian lekua izan dezaten gaia aldatzea erabaki du udalak. Bada, *kirola* izango da argazki lehiaketaren gaia, klubak hala iradokituta.

# Neguan ere ez dute hutsik egingo kultur ekitaldiek

Alegiako kultura batzordeak kultur ekitaldi sorta aurkeztu du, eta besteak beste, Olatz Salbadorren kontzertua eta Kimua kolektiboaren 'Generoa' ikuskizuna izango dira

**Eneritz Maiz Etxarri** Alegia

Alegiako Udaleko kultura batzordeak ez du atsedetik hartu, eta aurkeztu du neguko ekitaldien eskaintza. Urte berezia da alegiar askorentzat herriko elkartea den Intxurrek 50 urte betetzen dituelako. Elkartek herriar asko ukitzen ditu, eta urte hasierarekin urteurrena ospatzen hasi baziren ere, atzo eskaini zuten lehen aldiz Intxurre elkartearen gaineko dokumentala.

Elkarteari lotuta dauden herriar ezberdinak elkarrizketatu dituzte dokumentalerako, eta 50 urte horiek eman dituzten istorioak bildu dituzte. Elizpe zinemaren estreinatu zuten, atzo.

Bestalde, herriko txikiak ipuin kontaketa saio bat baino gehiago izango dituzte datozen asteetan, eta gaur bertan izango dute lehenaz gozatzeko aukera. *Kontu kontu kantaldia* ipuin kontaketa eskainiko du Itziar Saenz de Ojer-ek, kultur etxean. Hurrengo saioak otsailaren 17an eta martxoaren 22an izango dituzte. Egun gutxi barru, hilaren 28an, aldiz, Ekain pailazoaren eskutik *Alejop! 2.0* emanaldia izango dute, kultur etxean.

## MUSIKA ETA DANTZA

Santa Ageda bezpera egunez Alegiako Txintxarri abesbatzak aspalditik du ohitura herriko kaleetan barrena, makilak eskuan hartuta, kantuan aritzeko, eta aurten ere kalera aterako dituzte Santa Agedako doinuak.

Musikari lotuta Olatz Salbador donostiar bakarlaria hartuko du Elizpe zinemako oholta. Otsailaren 11n, ostiralean, 22:00etan eskainiko du kontzertua.

Dantzak ere izango ditu bere egunak, eta Kimua dantza kolektiboaren eskutik *Generoa* ikuskizuna ikusteko aukera izango da Elorri pilotalekuan. Horrez gain, herriko Sutarri dantza taldeak bi saioa eskainiko ditu. Alde batek, martxoaren 20an, *Elkarrekin dantzan!* egingo dute herriko plazan, eta bestetik, apirilaren 8an, ostiralean, Elizpe zinemaren eskainiko dute emanaldia.

Alegiako Udalak ekitaldien berri eman badu ere, gogorazi du unean uneko osasun egoeraren arabera ezarritako neurrietara egokituko dituela ekitaldiak. Hori horrela, aldaketarik balego horien berri aldez aurretik jakinaraziko lukete.



Olatz Salbador bakarlaria Alegian izango da otsailaren 11n. ATARIA

## NEGUKO KULTUR EGITARAUA

### Gaur, hilak 19

**17:00.** *Kontu kontu kantaldia* ipuin kontaketa, Itziar Saenz de Ojer-ek eskainita, kultur etxean.

### Hilak 23, igandea

**08:00.** Intxurre taldearen mende erdiaren ospakizunen barruan, mendi irteera egingo dute. Langau-rrera bisita egin, eta ondoren elkartean hamaiketako egingo dute.

### Hilak 28, ostirala

**17:00.** *Alejop! 2.0* pailazo emanaldia Ekain pailazoaren eskutik, kultur etxean.

### Otsailak 4, ostirala

**18:30.** Santa Ageda bezpera eguna izanik, Txintxarri abesbatza kantari aterako da, eta kaleetan barrena ibiliko da kantuan.

### Otsailak 11, ostirala

**22:00.** Olatz Salbador bakarlariaren kontzertua izango da, Elizpe zinemaren.

### Otsailak 17, osteguna

**17:30.** *Kontalari bi* ipuin kontaketa izango da, liburutegian.

### Martxoak 8, asteartea

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dute.

### Martxoak 11, ostirala

**22:00.** Kimua dantza kolektiboaren *Generoa* ikuskizuna izango da, Elorri pilotalekuan.

### Martxoak 20, igandea

**12:00.** Sutarri dantza taldeak *Elkarrekin dantzan!* saioa eskainiko du, herriko plazan.

### Martxoak 22, asteartea

**17:00.** Dorleta Kortazarren ipuin kontaketa saioa izango da, liburutegian.

### Apirilak 8, ostirala

**22:00.** Sutarri dantza taldeak emanaldia eskainiko du herriarren aurrean, Elizpe zinemaren.

## Tolosaldean ere badu bere ospakizun festa San Sebastianek

Berastegi, Berrobi, Leaburu-Txarama eta Orendainen daude San Sebastian ermitak, eta izango da zer ospatu

## Erredakzioa

Gipuzkoako hiriburuan bakarrik ez, San Sebastianek badu tokia Tolosaldean ere. Guztira lau ermita daude San Sebastiani eskainiak. Urtarrilaren 20a da San Sebastian eguna, eta lau herrietatik bitan behintzat ospatuko egingo dute biharko eguna.

Berastegi, Berrobi, Leaburu-Txarama eta Orendain herriek dute San Sebastianen omenezko ermita. Berastegin 10:30ean izango dute meza, eta ondoren, ohiko ohiturari eutsiz hamaiketako egingo dute.

Aldiz, Leaburu-Txaraman arratsaldean egingo dituzte ospakizun ekitaldiak. 17:00etan hasitako mezaren ostean, herriko dantzarien saioa izango da ermitaren kanpoan. Eta eguna boro-biltzeko parte hartzaile guztientzat merienda izango da herriko Ostatuan.

## SAN SEBASTIAN EGUNA

### Leaburu-Txarama

**17:00.** Meza izango da San Sebastian ermitan.

**Ondoren.** Herriko dantzariak emanaldia eskainiko dute.

**Bukatzeko.** Merienda herriko Ostatuan.

### Berastegi

**10:30.** Meza San Sebastian ermitan egingo dute.

**Ondoren.** Hamaiketako bertarazten diren guztientzat.

**Aurrematrikula irekia**  
**urtarrilaren 17tik 28ra**

**ikastolak**  
HEZKUNTZA ERALDATZEN



Azkenaldian Irun eta Brinkola arteko tren zerbitzuen atzerapenak eta etenaldiak ohikoak direla salatu dute bidaiariek; Gipuzkoako kaltetuen plataformak mozioak aurkeztuko ditu hainbat herritan

# Ordutegirik gabeko tren

**Leyre Carrasco**  
Amasa-Villabona

Irun-Brinkola arteko Renfeko aldirietako zerbitzua gehiago okertu da azkenaldian, bidaiariek ziurtatu dutenez. Arrazoiak ugariak dira; Adif enpresak euskal trenbide sarea Europako trenbide zabalera egokitzeko lanak, Abiadura Handiko Trenaren obrak, COVIDak sortutako langileen bajak, eguraldiaren gorabeherak... Arrazoiak arrazoi, erabiltzaileek pairatzen dituzte ondorioak eta trenen berandutzeaz gain, murrizketak ari dira jasaten.

Atzerapenak edo zerbitzuen etenaldiak «egunerokotasunaren parte» direla adierazi du Larraitx Garmendia billabonatarak. Donostiako akademia batean ikasten du Garmendiak, eta hara joateko tren da garraibiderik egokiena eta azkarrena. «Autoa edo autobusa hartzea gaizki datorkigunoi izugarritzko arazoak sortzen dizkigu Renferen trenak egunero jasaten dituzten atzerapenak eta hori onartezina da. Batez ere goizean izaten dira arazoak», esan du.

Koronabirusa dela eta, azken hilabeteen gainera, Renfeko langileen bajak areagotu dira. Eta Garmendiak azaldu bezala, egoera hori ere traba izaten ari da erabiltzaileentzat: «Bizi dugun egoera ez da batere erraza inorentzat. Izan ere, trenaren atzerapenak jende pilaketak dakartza, beraz, trenez bidaiatzeak COVIDa ondoan edukitzea dakar».

Garmendiak azalpenak eskatu izan ditu, baina gehienetan ez du erantzunik jaso eta megafoniatik



Larraitx Garmendia erabiltzailea, trenaren zain, Villabonako geltokian. L. CARRASCO

emandako azalpenekin konformatu behar izan duela dio: «Brinkola Lezo-Errenteriara doan trenak hamar minutuko atzerapena duela esan digute gaur –herenegun–, eta orduan geltokietako monitore edo teleindikadoreak begiratu behar izan ditugu, baita Twitter zerbitzua ere. ‘Barkatu eragozpenak’. Hori da ematen diguten azalpen bakarra».

Aitor Muriel billabonatarak, ordea, ez du tren zerbitzua egunero erabiltzen. Hala ere, tren berandu iritsi izan zaio noizbait. Puntualtasuna ezinbestekoa dela eta hori errespetatu beharra dagoela nabarmendu du: «Berandu iritsi edo ez, zuk berdin ordainduko duzu».

Asteburuetako ordutegia gehiago errespetatzen bada ere, Eneritz Noble billabonatarak ere behin baino gehiagotan jasan ditu zerbitzuaren arazoak. Izan ere, asteburuetan maiz erabiltzen du zerbitzua lagunengana edota

bikotearengana joateko, eta gehienetan ez da garaiz iristen hitzordura. «Hamar minutuko atzerapenak izaten dira normalean, baina kasu batzuetan hoge minutukoak izatera iritsi dira, eta egoera hori, jada, ohikoa da», dio.

## ATZERAPEN ARAZOAK

Adif enpresa euskal trenbide sarea Europako trenbide zabalera egokitzeko egiten ari den lanen ondorioz sortutako arazoak direla medio, Hirugarren Errailak Kaltetutako Erabiltzaileen Plataformak sortu dute hainbat herritarrek. Elkarteko ordezkariak herriz herri ari dira udalei Renfeko bidaiariak jasaten ari diren egoeraren berri ematen eta mozioak aurkeztuko dituzte ere.

Hain zuzen, abenduaren 21ean Amasa-Villabonako udal ordezkariak bildu ziren. Bertan, azken urteetan Donostia eta Irun arteko aldirietako tren zerbitzuetan gertatu diren etengabeko atzera-

penek eragindako kalteen berri eman zieten.

Jose Antonio Bayo da plataformako kideetako bat eta esan du atzerapen eta eteteak hainbat arrazoiengatik ematen ari direla, eta azkenak Tolosa, Hernani eta Donostia artean duela aste batzuk izandako euriteengatik izan zirela. Iazko urtearen erdialdean hasitako lanek egoera okertu besterik ez dute egin. Lan horiek «aldaketa teknologikoak» ekarri zituela esan du Bayok: «Irun eta Errenteria artean teknologia akatsak egon ziren. Arazoak pilatzen joan dira, eta horrek trenbide eta azpiegituren mantentze-lanen falta ere eragin du».

Bayok dio tren garraio kolektiboa dela, «gutxien kutsatzen duen zerbitzua», eta horregatik sustatu egin behar dela.

Orain arteko lanek eta aurreikusten diren obrek aldaketa berriak eragingo dituzte aldirietako zerbitzuetan eta hori «oso kezka-

**«Atzerapenak egunerokotasunaren parte dira, eta hori onartezina da; goizean izaten dira batez ere»**

**LARRAITX GARMENDIA**  
TREN ERABILTZAILEA

**«Puntualtasuna ezinbestekoa da, eta hori errespetatu beharra dago; berdin ordaintzen dugu»**

**AITOR MURIEL**  
TREN ERABILTZAILEA

**«Gehienetan berandu iristen naiz hitzorduetara, atzerapenarekin etortzen baita tren»**

**ENERITZ NOBLE**  
TREN ERABILTZAILEA

**«Garraio kolektiboa da eta gutxien kutsatzen duen zerbitzua da tren; sustatu egin behar dugu»**

**JOSE ANTONIO BAYO**  
HIRUGARREN ERRAILAK  
KALTETUTAKO ERABILTZEEN  
PLATAFORMA

garria» da Amasa-Villabonako udal gobernuaren ustetan. «Badi-rudi egoera hobetu beharrean, okerrera joan daitekeela, zerbitzuaren kalitatea eta maiztasuna nabarmen kaltetuko baitira», esan dute. Ondorioz, Renfe, Adif eta Espainiako gobernu ordezkariak eskaera zehatza egin dio udalak: Irun-Brinkola aldirietako zerbitzuak dituzten herrietako udalei eta erabiltzaileei informazio argi eta gardena helaraztea.



## Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba

### Elkartearen ohiko batzar nagusirako deialdia

**EGUNA:** 2022eko otsailaren 2an.


**ORDUA:** 17:00etan, lehenengo deialdian.  
17:30ean, bigarren deialdian.  
18:00etan, hirugarren deialdian.

**TOKIA:** Uzturpe Ikastolan.



## zozketak

### Atarikideentzat bi sarrera bikoitz ditugu



**ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022**

Urtarrilak 22, 18:00etan  
Tolosako Leidorren.

### Atarikideentzat bi sarrera ditugu



**GU PRIMER!**

Gu Primer!  
antzezlan

Urtarrilak 21, 20:30ean  
Tolosako Leidorren.

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95** edo [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

# «Egoera hau aldatzeko mobilizazio jendetsuak ezinbestekoak dira»

## BEÑAT LARRAÑAGA ETA ANE GALARZA TOLOSALDEKO GKS-KO KIDEAK

Tolosaldeko Gazte Koordinadora Sozialistak hilaren 29an manifestazioak antolatu ditu Bilbon eta Iruñean; aurrez, larunbat honetan, Alegian kontzertuak izango dira

### Asier Imaz

Ondorengo egunetako mobilizazioetan parte hartzea deitu dute Beñat Larrañaga (Tolosa, 2000) eta Ane Galarza (Zizurkil, 1998). **Urtarrilaren 29an, Bilbora joateko deialdia egin duzue.**

Hori da. GKS antolatzen dituen lehen manifestazio nazionalak izango dira Bilbokoa eta Iruñeakoa. Modu orokor batean esanda, bankarien, enpresari handien eta politikari profesionalen boterearen aurka mobilizatu gara, pobrezia eta askatasun ezara kondenatzen baikaituzte. Gainera, azken urteetan zein hilabeteetan ofentsiba hau azeleratu dela ikusten ari gara eta horren auka mobilizatu behar gara deritzogu.

### Aurrez eskualde mailan ere antolatu dituzue ekimenak.

Hilabete hasieran batzar irekiak egin ditugu Alegian, Tolosan, Anoetan eta Villabonan, non urtarrilaren 29an kalera irteteko ditugun arrazoen inguruan hitz egin eta bertaratu diren galderak zein ekarpenak gehitzeko aukera izan dugun. Horretaz gain, testuinguruaren gaineko irakurketa biltzen duen esku orriak banatu ditugu, hainbat mural

egin... eta oraindik ere lanketa ezberdinak egingo ditugu datoen egunetan, besteak beste, larunbatean Alegiako gaztetxean egingo dugun Nikotina, Little Martin eta Stepi Selettah-ren kontzertua. Esango genuke testuinguruaren gainean egiten dugun irakurketa gero eta jende gehiagok elkarbanatzen duela. Gainera, egunerokotasunean bizi ditugun arazoei erantzun errealek emateko politikari profeso- nalen ezintasuna nabarmena da, baita ezkerreko bezala izendatzen diren alderdien partetik ere. Guzti horrek, bere kabuz antolatzeko abagunea irekitzen dio langilegoari eta bide horretan pauso bat gehiago izango dira urtarrilaren 29ko manifestazioak.

### Ekimen hauek zein testuingurutan kokatzen dituzue?

Langilegoak gero eta pobrezia handiagoa eta eskubide gutxiago dituen testuinguruan kokatzen ditugu mobilizazio hauek. Gazteok bizi dugun errealitatean ere nabarmena da joera hori. Gure gaitasun ekonomikoa gainbehera izugarrian doa, langabezia-tasa handiak, lan-kaleratzeak, soldata baxuak, lan ezegonkor- rarak, bizitzaren garestitzea eta



ATARIA

abar dira horren zenbait adierazle. Era berean, orain arte ukiezinak ziruditen eskubideen ezabapena ere normalizatzen ari da COVID-aren aitzakiapean eta pandemiari emandako aterabide polizialak ere egoera okertu du: jazarpen poliziala, kontrol soziala, desinformazioa, sozializatzeko espazio eta aukeren murrizketa... Gainera, gazte eta belaunaldi berrien gainean interbentzio kultural handia ari dira ematen, alegia, gure pentsatzeko eta jokatzeko moduak datozen garaietara egokitzen. Izan ere, pobrezia-aren gorakadak ezinbestekoa du zapal dutako subjektibitate bat ezartzea, gauzak beste modu batetara izan daitezkeenaren ideia ezabatuz. Horretarako, funtzio garrantzitsua ari dira jokatzeko sare sozialak, komunikabideak, industria zinematografi-

koa, bideo-jokoak eta bestelako plataforma digitalak. Finean, pobrezia eta askatasun ezara egokituko den izateko eta bizitzeko modu bat bultzatzen dute gazte eta belaunaldi berriengan.

Hala ere, ez dugu uste horiek gazteon arazoak soilik direnik, orokorrean, langile guztiek bizi dituztenak baizik; eta arazo horiei aurre egin ahal izateko ezinbestekoa da errora jotzea. Hor kokatzen dugu krisialdi kapitalista, eta horren ondorioz ezartzen dituzten mugimendu bezala ulertzen ditugu bizi ditugun arazoak. Pobre bizitzea normalizatu eta horren aurrean obedi- entzia eta sumisioa bermatu nahi dute, horretaz ari gara ofentsiba ekonomiko eta politiko bat ematen ari dela diogunean.

### Urtarrilaren 29ko manifestazioen helburua zein da?

Manifestazioen helburua da bizi ditugun arazo hauek gizarte eredu honen ondorio direla salatzea eta, horren aurrean, gizarte sozialista baten urgencia azpimarratzea. Egoera hau aldatzen joan ahal izateko ezinbestekoa izango da mobilizazio jendetsuak gauzatzea, basakeria kapitalistaren aurka gaudela adieraztea kaleetan.

### Zein mezu zabalduko dituzue Bilbotik eta Iruñeatik.

*Burgesiaren diktadura gelditu* lelopean egingo ditugu manifestazioak, izan ere, bankari eta enpresari handiak dira bizitzen ari garen egoeraren erantzule nagusiak. Egunez egun pobrezia eta askatasunik gabeko bizitzara kondenatzen ari direla salatuko dugu, baita hau bultzatzen ari diren politikari profesionalen ardura seinalatu ere.

Bestalde, errealitate honi aurre egiteko esperantza piztu nahi dugu. Baita pobretzen ari garen arteko elkartasuna handitu behar dela aldarrikatu eta politikari profesionalen fartsatik kanpo antolatu behar dugunaren mezua zabaltzeko ere.

### Eskualdeko herritarrei zein deialdi egiten diezue?

Urtarrilaren 29rako mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dugu, eta hainbat herritako tabernetan autobusean izena emateko zerrendetan apuntatzera animatu ere: Tolosako Amaiur eta Asteasuarrak, Alegiako Hilario berri, Anoetako Arkupe, Ibarako Atari eta Aiztondoko Egarri eta Rainbow. Premiazkoa da testuinguru hau salatzea eta bakoitzak bere aletxoak jarri eta Bilbon zein Iruñean kaleak hartzea.

Era berean, eguneroko lanak duen garrantzia azpimarratuz, bai gazteak zein, oro har, langileak politikoki antolatzen joatea da bultzatzen duguna, bakoitzak dituen gaitasunen eta aukeren arabera bere ekarpena eginez.

## Hilberriak eta urteurrenak



-Esker onak-

### JOSEBA ERASO ULAZIA

Urtarrilaren 11n hil zen, 23 urte zituela.

Familiak eskerrak eman nahi dizkizue aurreko egun hauetan beraiekin izan duzun jarrera onagatik eta momentu latz hauetan jaso duten laguntza guztiagatik.

AMEZKETA, 2022ko urtarrilaren 19an.

## hilberriak • eskertzak • urteurrenak

**Ataria jarrita  
Urola Kostako  
eta Goierriko  
Hitzetan DOAN**

### Eskelak orain merkeago!

|                              |                                                     |
|------------------------------|-----------------------------------------------------|
| TXIKIA (82mm X 64mm): 110€   | • Harpidedunentzat 55 €                             |
| HANDIA (124mm X 64mm): 160 € | • Harpidedunentzat 80 €                             |
| ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € | • Harpidedunentzat 30 €<br><small>bez barne</small> |

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

# Bide onetik doaz TAKE klubeko bi talde nagusiak

Gizonezkoak igoera faserako sailkatuta daude, eta igoera lortzea ez dute baztertzen; emakumezkoak igoera faserako sailkatzen saiatuko dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Denboraldiaren erdian daude TAKE saskibaloia klubeko bi talde nagusiak. Gizonezkoen Redline Mekanika TAKE taldea euskal ligako lehen mailan dago, eta igoera fasea jokatzeko txartela lortu du. Emakumezkoen TAKE taldea Gipuzkoako ligako lehen mailan dago, eta oraingoz bosgarren postuan dago.

Redline Mekanika TAKE taldeko kideak animoz ondo daude, asteburuan Tabirako Baque talde durangarrari irabazi baitzioten, beraien etxean. «Garaipe garrantzitsua da», esan du Goar Artetxe entrenatzaileak, «lehen bi postuetan geunden taldeen arteko partida zelako. Talde indartsua da etxean, eta larunbateko partida espero baino hobe irabazi genuen. Oso partida gogorra eta fisikoa aurreikusten genuen, baina ondo ezagutzen genituen bere indarguneak eta partida oso ondo joan zen». Orain bi taldeak daude sailkapen buru, sei partida irabazi eta bi galduta.

Aurreko urtean ere goiko postuetan izan ziren, eta igoera fasea jokatu zuten. Artetxeren lehen denboraldia zen taldeko entrenatzaile moduan, eta prozesu horretan «lan txukuna» egin zutela dio. «Aurten bagenekien zein zen bidea, eta horri jarraitzen ari gara. Taldea gutxi gorabehera iazko bera da, eta bi junior igo dira lehen taldera. Orain arteko balantzea oso ona da». Aurtengo denboraldian galdutako bi partidak, azaroan, taldeko hiru-lau jokalaria garrantzitsu lesionatuta zeudelarik izan zirela azaldu du. Orain, urte hasieran, taldea osorik dagoela dio Artetxek: «Oso ondo entrenatzen ari gara, oso lan ona burutzen ari gara eta Durangon irabazitako partidak taldeari konfiantza handia emango dio».

Dagoeneko igoera faserako sailkatuta dago taldea, eta lehen fase honetan partida gutxi falta zaizkie. «Lesioek-eta errespetatzen badigute, uste dugu talde konpentsatua dugula eta oso



Redline Mekanika TAKE taldearen denboraldi honetako familia argazkia. ATARIA



TAKE taldearen denboraldi honetako familia argazkia. ATARIA

aurkari gogorra izango garela edonorentzat», azaldu du Artetxek. Taldearen helburua ez da igoera lortzea, baina ez diote muzin egingo aukera horri. Bi talde igoko dira: igoera faseko lehen sailkatua izango da horietako bat, eta bestea bigarren eta bosgarren sailkatuen artean jokatu den lauko finaleko irabazlea. «Klubetik ez dugu zehaztuta helburu bezala igotzea», esan du Artetxek. «TAKE kluba eskualdeko jokalariek osatzen dute, eta ez dugu fitxaketarik egiten beste klubetan bezala. Helburua da jo-

kalariek ikastea, hobeto jokatzea, oso giro ona egotea taldean, klubean, eskualdean, eta jokalarien lan onaren ondorioz urtez urte hobetzen joatea. Noski, gauzak ondo egiten baditugu eta igoera fasean aukerak baditugu, anbizioa izango dugu eta igoera lortzera joango gara».

Euskal Federazioak lehen aldiz antolatu du Kopa txapelketa beraien mailan, eta finalerdietara iritsi da Redline Mekanika TAKE. Otsaileko azken asteburuko larunbatean finalerdia jokatu dute, eta irabaziz gero,

egun bat beranduago finala. Arrasaten jokatu dute asteburu guztia, eta TAKEkoek Arrasateren aurka jokatu dute beraien finalerdia. Bestea, Tabirako eta Bilbao Basket taldeen artekoa izango da. Martxoan hasiko da igoera fasea.

## ENTRENATZAILE BERRIAK

Emakumezkoen TAKE taldearen denboraldi honetako berritasun handiena entrenatzaile postuetan dago. Jon Azaldegik da lehen entrenatzailea, aurretik gizonezkoen lehen taldeko joki-

lari eta entrenatzaile izandakoa. «Gustatzen zaigun kirola da, urte askotan zehar gauza asko eman dizkiguna, eta beti geratzen zaizu gogo hori berriz hasteko», esan du Azaldegik, entrenatzaile moduan berriro aritzeko arrazoiaz galdetuta. «Aurreko denboraldi bukaeran klubetik esan zidatenean ea entrenatzaile izan nahi nuen, nire anaia Beñati laguntza eskatu nion, eta ikusi genuen bion artean taldea eraman ahal genuela. Ilusioa egiten zigun eta hortxe ari gara».

Entrenatzaileak eta jokalariek aurreko denboraldi bukaeran elkar ezagutu zuten, ekaina eta uztaila inguruan entrenamendu batzuk eginez. «Elkar ezagutzeaz gain, entrenamenduen eta partidaren dinamikan sartzeko ere baliotza izan zuen», zehaztu du Azaldegik. Denboraldia nahiko gorabeheratsu doa partidaren egutegiari dagokionez. Izan ere, hasiera batean 11 talderentzako egutegia osatu zen, baina azken momentuan izena emandako bi talde atera egin ziren, ezin izan zutelako taldea osatu. Beraz, bederatzi talde ari dira lehian, eta tarteka gertatu daiteke hiru asteburu jarraian atsedena izatea, eta gero lau asteburu jarraian partidak jokatzea. Hori horrela, talde guztiek ez dute oraingoz partida kopuru bera jokatu.

TAKEkoak egun bosgarren postuan daude, bi partida irabazi eta bost galduta. «Urte hasieratik garbi utzi genuen emaitzei begira baino, gehiago begiratu genuen taldeak zer moduz entrenatzen zuten eta gero ea lehiatzeko gai zen», azaldu du entrenatzaileak. «Zentzu horretan, 2-5 ez da balantze ona, baina taldeak denboraldi hasieratik hona aurrerapauso nahiko nabaria eman du lehiari dagokionez. Ondo lehiatzen ari da, eta batez ere astez aste hobeto entrenatzen eta lehiatzen ari gara. Orain arteko balantzeari dagokionez, beraz, oso pozik nago jokalariek egiten ari diren lanarekin».

Lehen lau sailkatuek izango dute lauko finala jokatzeko aukera, eta bi talde igoko lirerateke mailaz. «Oraindik aukerak badiugu igoera fase horretan sartzeko, baina horretarako partida asko irabazi behar ditugu bigarren itzulian», esan du Azaldegik. Abenduaren 19tik jokatu gabe daude, eta asteburu honetan laugarren sailkatuta dagoen Oiarsoaren aurka izango dute partida, aurkariaren etxean. Urteko lehen garaipena lortzeko aukera izango dute, beraz, TAKE taldekoek.



**ASTEAZKENA, 2022KO URTARRILAK 19**  
**Argitaratzailea:**  
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeka Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
 villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
 anoetalea@ataria.eus  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
 alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezera arreta zerbitzua:** 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA  
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:  
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



# ASTEAZKENA 19

## AGENDA

### Deialdiak

**Alegia.** Kontu kontakantaldia ipuin kontaketa, Itziar Saenz de Ojer-ekin, kultur etxean, 17:00etan.  
**Irura.** Alaine Agirreren Karenaliburuaz hitz egingo dute irakurle taldean, liburutegian, 18:00etan.  
**Zizurkil.** Elikagaien kalitatea eta higiena, Fraisoren, 15:00etan.

### Erakusketak

**Alkiza.** Joseba Agirrezabalagaren Bltkk erakusketa, Ur Mara museoan.  
**Tolosa.** Binilozko diskoak eta txo-txongiloak, Topic-en.  
**Tolosa.** Paperezko antzerkian Alain Lecucq-ek sorturiko lanak Topic-en.  
**Tolosa.** Albert Bagno-ren *Il teatrini della fede*, Topic-eko anbiguan.  
**Zizurkil.** Motxila ibiltariko misioan egindako *Superheroiaren erakusketa* Plazida Otaño liburutegian.

## ATARIA IRRATIA

**09:00. Pasahitza.** Asier Imazek gidatutako magazina.  
**16:00. Zebraidea.** Arroza sareko irratrien artean eginiko magazina.  
**21:30. Lokatzetan.** Umorezkoa saioa.

## 28 KANALA

**08:00.** 1, 2, 3 hemen da Miru!  
**11:00.** Musika zuzenean (Iseo)  
**11:30.** Gaurkoan Tolosaldeetik  
**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeetik  
**22:00.** Lehen lerroan

## FARMAZIAK

### Gaur

**IBARRA. Egunekoa.** Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

**TOLOSA. Gauekoa.** Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.


## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Giro motelagoa. Goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, baina giro argia izango dugu. Egurditik aurrera hodeiak ugaritu egingo dira, zerua nahiko estalirik utziko dute eta ez da baztertzaz azken orduan euri txiki modura zertxobait bustitzea. Haizeak aldakor joko du goizean eta iparraldetik arratsaldean. Tenperatura ez da aldaketarik emango, 9-10 graduan errendituko delarik.

**Bihar.** Giro triste eta hotza. Egun osoan zeruan hodeiak nagusituko dira eta tarteka euri pixka bat izango dugu, bereziki goizean eta euri txiki modura. Haizeak ipar/ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, maximoak nekez pasako direlarik 7-9 gradutik. Azken orduetan egiten duena 900 metrotik gora elurretan izango da.

Tolosaldeko Ataria ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik.



## HERRIAZ IKASIZ JOLASTUZ

**Euskarazko denbora-pasen liburuxka kaleratu du Tolosako Udalak: Laukiz lauki Tolosan berrera.** Iñaki Agirresarobe Igiñiz irundarra izan da liburuxkako hitz jokoen sortzailea. Bada, denbora-pasen liburuxkaren aleak eskuragarri daude udal liburutegian eta udaletxeko Euskara Sailean, eta kultur etxean eta Galtzaundin ere jarriko dituzte edonorentzat. ATARIA

## ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20  
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

## ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022

SARRERAK AGORTUTA

Oihana Iguaran  
 Maialen Lujanbio  
 Amets Arzallus  
 Andoni Egaña  
 Nerea Ibarzabal  
 Iker Zubeldia

Urtarrilak 22, larunbata,  
 18:00etan,  
 Tolosako Leidor antzokian

Gai jartzailea:  
 Amaia Agirre

Antolatzaileak:  
 Ataria  
 HARRITZ  
 galtzaundi

Babeslea:  
 Y  
 TOLOSA